


LIZARDIREN OMENEZ
EDUARDO TXILLIDAREN ESKULTURA ETA POESIA

EDORTA KORTADI


LIZARDI_{REN} OMENALDIA
BERE HERIOTZAREN 50. URTEMUGA



Abenduak 11



E. Txillidaren Eskulturaren
Aurkezpena



Tolosako herriak, bere Udalaren bidez, Xabier Agirre “Lizardi” poeta-
ren omenez, oroigarritzko monumentu bat eskeini dio gaur.

Ez da bestalde, lehenbizikoa. Juan Garmendia Larrariaga nere lagun
etnologoak esan didanez, Lizardik bazeukan gerra aurrean monumentu
ttipi bat Urkizuko bidean eraikia, gerra garaian ondatu zutena, eta Tolo-
sako lagun batzuei esker birreraikia izan zena. Piramide tankerako monu-
mentua zen, plaka eta iragarki batekin.

Gaurko oroigarritzko monumentua, nahiz eta ederragoa izan, Eduardo
Txillida eskultoreari esker, maitasun eta eskerbide berdinez egina dago.
Lizardik, Tolosarekin hain lotuta dagoen poeta liriko haundiak, halako
eskerron herrikoia merezi zuen. Eta benetan esan behar dizuet Tolosako
jendeari, eta batez ere Asensio Hondarzabali gaurko monumentu oroiga-
rria Lizardi-Txillida artista bikotearekin oso ondo kokatu duzuela.

Artista edo artegile biak naturzale finak eta sakonak dira. Biek sustrai-
tzen dituzte beren artelanak izadi-formetan, mundu orokor eta mundu sin-
bolikora iritsi arte.

Txillidaren kasuan, adibidez, 1948an, bere lehendabiziko eskulturetan,
“Forma” eta “Gorputzenbor” obretan bere natur-biologiko zaletasun hau
oso garbi adierazten da. Ondoren etorriko dira bere “Txorien izpiritua”,
Haizearen orrazia”, “Biribilen eta izadiaren musika”: 1952/53/54an egi-
nak.

Berak esan du obra hauetan izadira zabalik dagoela. Izadiaren edozein
paraje edo bazter, ederra gerta daitekeela, adibidez, “Lizardiren leihoeta-
tik” obran ikusten dena, eta nahiz eta oso monumentala ez izan oso ederra-
dena. Izadiaren ikusketatik kulturen aberastasuna etortzen dela adierazi du
askotan.

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago bera ez dela geratzen izadiaren
azalezko formetan, aitzitik, barneko egituretara iristen baita: “Nere bar-
neko ikerketak —esaten du Txillidak— gauzen azalean bakarrik ez geratzera
eraman nau; beste gauza batzuk, askoz barruago daudenak interesgarria-
goak gertatu zaiztik”. “Sakona, haragia, hezurak jakingarriagoak dira
neretzako”. “Egiturak, erritmoak, biologia eta fisika berak interesgarria-

goak izan dira neretzako”. “Gauza haundiak eta sakonak beti gordeta eta estaliak egoten dira: bizitzaren erritmo nagusia eta ezagutzen ez ditugun gauzak izaten dira, nahiz eta begi-begizko burutapenak izan.

Horregatik, bere arte-mintzaira historian zehar ez da gehiegi arduratu azalezko formez, barneko egitura eta erregelataz, barne-kanpoko arazoetaz, materialen nortasunetaz, etab... askoz kezkatuagoa ibili da beti. Bestalde esan beharra dago, eskultoreari, Txillidari, bere bizitza guzian ardua haundia eman diola poesiak. “Asko maite dut poesia” esaten du artistak. Asko irakurri ditut Alemaniako erromantikoak: Höderling, Goethe, Novalis; eta baita Frantziako eta Ingalaterrako poetak ere. Euskaldunen artean, Aresti eta Lizardi aipatzen ditu.

Lizardiri buruz Txillidak esan digu, poeta fina kontzeptuala aurkitzen duela, liriko haundia, batez ere izadiari buruz idazten duenean. Oso ondo bateratu da berarekin. Bere garaiko izadi bututapenak, nahiz eta oso soaldikoak edo kontenplatiboak izan, aurrerakoiak eta ederrak dira.

Horregatik, Asensio Hondarzabalek, Lizardi Elkarteko Lehendakariak, Lizardiren omenezko monumentu oroigarrian parte hartzeko eskatu zionean, baietza eman zuen ideia batzuekin jokatzu.

Lehenbizikoa hau izan zen: Tolosak herria ikertu ondoren, Peña Gantxegi arkitektoaren laguntzarekin, leku apropos bat aurkitu zuen, Aranburu Jauregiaren zelaia, hain zuzen. Eskultura bi piezarekin osatuta egongo zen elkarrizketan egongo bailiren; batak poesia ikastuna eta besteak poesia herrikoia, bertolaritza batez ere, adieraziko zuen. Baina ideia hori erabat baztertu zuen.

Bigarrena. Bera espazioaren arazoarekin kezkatua zebilen eta Lizardiren kasuan dimentsio ekologista bat zegoenez, nahiz eta garai hartan halako hitzik ez egon, halako ideiekin jokatzea pentsatu zuen.

Estela forma eukiko zuen, paretan edo horma itxurakoa, sendo eta indartsua eta zulo edo hutsune batzuk eukiko zituen, jendeak izadia, zuhaitzak, mendiak eta zerua ikus zitzan: “Lizardiren leihoak” izenez bataiatua izan zen azkenean. Ikusten den bezala eta Txillidaren beste obratan bezala, *badago loturatik eskultura eta beronen inguru naturalaren artean*.

Abesti gogorra —parke haundi batean. Houston. Texas-en/Oyarak— kale eta lantoki sarrera batean. Frankfourten. / Haizearen orrazia. Itsasoarekin. Donostian. / *Lizardiren leihoak-natura eta mendiekin. Tolosan*.

Kasu honetan besteetan bezala eskultura da gutxienezkoa; ingurunea, izadia da elementurik garrantzitsuena. Eskultorea benetan gizon umila agertzen da. Berak badaki Naturaren aurrean arte lanaren balioa ttipia dela eta artekari lana besterik ez duela egiten. Baina horretan ere, planteamendu horietan ere, beste askotan bezala (materialaren tratamenduan, formen jokabideetan, barnekanpoko planteamenduetan), Txillida eskultorea, mundu osoaren plazan aurrerakoa eta gizon argia izan da.

Horregatik ematen ari zaizkio hainbeste sari: Veneziako Biurtekoa, Rembrandt Saria, Graham Foundation, Chicago Saria, Kandinsky Saria, Carnegie Saria, Europa Saria orain dela denbora gutxi irabazitakoa.

Txillidaren dozena bat obra besterik ez dago Euskal Herrian: Donostian hiru, Bilboko Museoan hamar eta Gasteizen bat.

Horregatik gaude gaur hain pozik Tolosako herrian beste artean balioitsu, eder eta sendoa eukitzeagatik.

Txillida jaunari zorionak eta esker mila tolosar guztien izenean*.

* Hitz hauek Aramburu Jauregian eskulturaren aurkezpenean eta Tolosako Herriak Txillidari eskeini zion eskertzan esandakoak dira.